

historia

Donostia, 1933ko apirilaren 16a

Euzkadi-Europa:

Europara begira
egindako **Aberri Eguna**

**Jai oneik aberrijaren entzulia edatu
dagikie.**

**Orain arte etxian sartuta egon
garanok, aurrerantzean ludi-ziar
juan bihar gara.**

Lauaxeta


1 933ko udaberri partea. Dagoeneko bi urte igaro dira II. Errepublikaren aldarrikatu zutenetik. Urte oparoak izan dira EAJrentzat: alderdiaren barne-egitura zabaldu eta osatu egin da, afiliazioak gora egin du nabarmen, alderdiaren inguruan gizarteko sektore ezberdinekin osatutako familia-komunitate moduko bat sortu da, ordezkari jeltzaleak daude Hego Euskal Herriko udaletan eta Espainiako Gorteetan...; gainera, EAJk autonomia estatutua lortzeko prozesua martxan jartzea lortu du –nahiz eta momentu honetan prozesua *impasse* moduan dagoen–. EAJ alderdi indartsua da, eta erakutsi egin nahi du indar hori. Laster izango du horretarako parada, apirilaren 16an, Pazko Igandean. Egundik horretan alderdiak Aberriaren Eguna ospatuko du, aurreko urtean lehenengo aldiz ospatu zuen Aberri Egundik arrakastatsuari segida emateko.

MIREN BARANDIARAN CONTRERAS

Historialari, euskal nazionalismoari buruzko hainbat libururen egile, besteak beste: Aberri Eguna. 70 años de fiesta y reivindicación.

Dokumentazioa:

IÑAKI GOYOGANA. Euskal Abertzaletasunaren Museoa.



Aberri Eguneako mitinera joateko deialdia (*Amayur*, 1933.04.07)

Orduan Bilbo aukeratu zuten Aberri Eguna egiteko eta alderdiaren sortzaile Sabino Aranari egin zioten ohore. Orain Donostia aukeratu dute, eta beste zentzu bat eman nahi diote ospakizunari, zentzu berri bat. Horretarako aukeratu dute *Euzkadi-Europa* ikurritza. Gerra Handia amaitu zenetik Europan asko indartu direlako estaturik gabeko nazioen aldarrikapenak, eta jeltzaleek testuinguru horretan kokatu nahi dutelako euskal nazioaren arazoa. Ez da hori berria EAJrentzat, urteak dararamatza Europako nazio txikiei begira; 1930etik, gainera, Nazioen Elkartearen babesean dagoen Europako Nazionalitateen Biltzarreko kide da, hots, Europa mailan gutxiengo nazionalen eta estaturik gabeko nazioetako alderdi politikoaren ordezkari-

zak biltzen dituen erakundeko kide. Dena dela, orain arte nazioarteak pisu txikia izan du EAJren politikan, eta horregatik, Donostiako Aberri Eguna aprobetxatuko dute jeltxideek egoera horri buelta eman eta euskal nazioaren arazoa behin betiko nazioartean ezagutzera emateko –bidenabar, autonomia estatutuaren prozesuak momentu honetan bizi duen geldialdiari aurre egiteko modua ere izan daiteke kanpora begiratze hori–.

Kontu handiz prestatu dute Aberri Eguna –Gipuzko Buru Batzarrari utzi diote ardura hori–; astebeteren bueltan, gainera, hauteskundeak ospatuko dira hainbat udaletako ordezkariak aukeratzeko, eta gauzak ondo irteten badira, Aberri Eguneko ospakizunek propaganda handia egingo diote EAJri¹. Horregatik, eta Aberri Egunari berari oihartzun handiagoa emateko, Euskal Astea antolatu dute, Donostian bertan, apirilaren 15etik 22ra bitartean: hitzaldiak, antzerkiak, kontzertuak... Deialdiari oihartzun handia eman diote jeltzaleen egunkari eta aldizkariak. Gobernadore zibilak oztopoak jarri ditu; Aberri Eguneko ospakizuna bertan behera geratuko denaren zurrumurrua ere zabaldu dute hainbatek..., baina horrek ez ditu jeltzaleak kikildu. Ez. Denen buruan, aurreko urtean Aberri Egunak izan zuen arrakasta... Zinez, jendetza espero dute Gipuzkoako hiriburuan.

Eta jendeak ez du hutsik egin. Pazko Igandean, Aberriaren Egunean, Donostiako kaleak jendez gainezka daude. Euskal Herriko txoko guztietatik iritsi dira Donostiara. Trenez, autoz, oinez...; itsasontziz ere etorri dira, aberriari goratzarre egin eta Europari horren berri emateko. Goizean meza nagusia entzun dute Santa Maria elizan, zintzo-zintzo. Arratsaldeko ordu bietan denak Atotxako errebote plazara joan dira, eguneko ekitaldi nagusia izango den mitina entzuterako. 50.000 pertsona inguru izango dira han bildutakoak. Jende asko, zalantzarik gabe. Agertokia ere jendez gainezka dago; EAJko buruzagiak dira gehienak. Mitinean parte hartuko duten hizlariak ere bertan daude. Batetik, jeltxideak: GBBko kide den Teodoro Hernandezena, Espainiako gorteetan diputatu Jose Antonio Agirre eta GBBko lehendakari Telesforo Monzon. Bestetik, gonbidatuak, Europa

75 urte

mailako erakundeetako ordezkariak eta Katalunya nahiz Galiziakoak: Ewald Ammende ENBko idazkari estoniarra, Francesc Maspons i Anglases ENBko lehendakari-orde katalana eta Ramon Otero Pedrayo Partido Galleguistako diputatua; Unió Democrática de Catalunya lehendakari Manuel Carrasco i Formiguera ere hor dago, nahiz eta honek agurra bakarrik egingo duen.

Hernandorenak eman dio hasiera mitinari; Espainiak eta Frantziak bezala, Euzkadik ere estatua izateko eskubidea duela esan du. Gero, Agirrek hitz egin du, eta beste gauza askoren artean, zera esan du: Europak jakin egin behar duela euskaldunen herria zapalduta dagoela, eta jakin egin behar duela, baita ere, euskaldunak borroka egiteko prest daudela, garaipena lortuko dutela eta egunen batean aske izango direla; orduan munduko herrialde guztietara enbaxadak bidaltzeko moduan izango direla ere esan du. Ondoren gonbidatuak eman diete hitza. Otero Pedrayok mundu-mailako laguntasunaz eta Europari nazionalistek eman diezaioketen laguntzaz jardun du. Ammende euskal nazionalistenganako begikotasuna azaldu du, modu orokorrean, gehiegi busti gabe. Maspons i Anglases Espainiako estatuaren barruan dauden herriei askatasuna eman behar zaiela esan du. Azkenik, Telesforo Monzonek hitz egin du, eta Ammenderi eskatu



Mitinaren ikuspegi orokorra. © Kutxa Fototeka.



Mitinareen ikuspegi orokorra.

© Abertzaletasunaren Agiritegia-Sabino Arana Fundazioa

Las aspiraciones actuales vascas están perfectamente encuadradas en lo que se llama problema de las minorías nacionales. Se ha creado un nuevo derecho a la luz de las realidades políticas de la post-guerra. El nacionalismo vasco se ha adherido a las nuevas normas de política internacional.

Gipuzko Buru Batzarrak Aberri Egunerako ateratako agiria ("Euzkadi ante el movimiento nacionalista europeo", *El Día*, 1933.04.16)

horren erakusle izango dira. Europara begira egindako apustuak, ordea, ez du eragin nabarmenik izango; segidarik ia batera ere ez hurrengo hilabete eta urteetan. Goiztiar ibili dira EAJkoak Europara begiratu nahian. Oso goiztiar. Agian, goiztiarregi. Bi gerrate pairatu beharko dituzte oraindik euskaldunek Europara iritsi baino lehen, *Euzkadi-Europa* ikurritzak benetako esanahia eskuratu baino lehen.

Cada vez es menester incrementar más y más los lazos con el resto de Europa (...). El panorama internacional es una caja de resonancia donde se agrandan poderosamente los ecos que parten de las pequeñas nacionalidades. En sus tribunales se propugnan los derechos de la lengua, de costumbres, de religión de las minorías. Creemos que el grito unánime de los congregados en Donostia habrá sido oído en Europa, en los receptores de sus instituciones superestatales.

Egizale (Alberto Onaindia), "Euzkadi-Europa", *Euzkadi*, 1933.04.22.

OHARRAK:

¹ 1931ko udal hauteskundeetan hainbat herrietako zinegotziak bozketarik egin gabe aukeratu zituzten, hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagaien kopurua aukeratu beharreko zinegotziena baino txikiagoa izan zelako. Hori posible egiten zuen 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua bertan behera geratuenez, 1933ko apirilaren 23rako hauteskundeak deitu zituzten bozketak egin ez zituzten herrietan –gehienak, herri txikiak–.

² 1933ko uztailean sinatutako den Galeuzca itunaren prestaketa lanen testuinguruan ulertu behar dira hitz hauek. Donostiako Aberri Egunean katalanek eta galegoek izandako presentzia ere testuinguru horretan ulertu behar da.

³ EAJren botoek gora egin zuten nabarmen Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, aurreko hauteskundeetan lortutako emaitzekin alderatuz. Gainera, jeltzaleak Gipuzkoan eta Bizkaian garaile izan ziren.

BIBLIOGRAFIA

ARRIETA ALBERDI, L.: *Estación Europa. La política euro-peísta del PNV en el exilio (1945-1977)*. Madrid: Tecnos, 2007.

BARANDIARAN, M.: *Aberri Eguna. 70 años de fiesta y reivindicación*. Bilbao: Fundación Sabino Arana, 2002.

GRANJA, J. L. de la: *El oasis vasco. El nacimiento de Euzkadi en la República y la Guerra Civil*. Madrid: Tecnos, 2007.

NÚÑEZ SEIXAS, X. M.: "¿Protodiplomacia exterior o ilusiones ópticas? El nacionalismo vasco, el contexto internacional y el Congreso de las Nacionalidades Europeas (1914-1937)", *Cuadernos de Sección Historia-Geografía*, 23 (1995), 243-275 orr.

DE PABLO, S.; MEES, L.; RODRÍGUEZ RANZ, J. A.: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*. Barcelona: Crítica, 1999.

UGALDE, A.: *La Acción Exterior del Nacionalismo Vasco (1890-1939): Historia, Pensamiento y Relaciones Internacionales*. Oñati: HAAE/IVAP, 1996.